

Euskal museoaren galerei aurre egiteko, barne azterketa abiatu dute

Aholkularitza enpresak lehen fasea bururaturik, apirilean publiko eginen ditu bere ondorioak

NORA ARBELBIDE - BAIONA

Baionako Euskal Erakustokiak atea berriz ireki zituenetik 2001ean, urtean milioi bat euro galtzen ditu Baionako hiriak; beregokitze obren mailegua barne, hau da, urtean, 320.000 euro. Diru gehiegi dela eta horrela ez dagoela segitzetik erabakirik, bada orain zenbait hila-bete barne azterketa bat eramatea eskatua diotela Frantzia hegoaldeko Les Maitres du Reve izeneko aholkularitza enpresari Baionako hiriak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Baiona, Miarritze eta Angeluko hiri elkargoak lagundurik. Ikuskatze lanetan diharduela enpresak oraino, lehen ikerketa fasea bururatu badu ere, apirilean publiko egitekoak ditu bere norabideak, bai epe motzera zein luzera.

Zehazki, diru galtzeak nondik heldu diren ulertzen lagundu eta, erakustokia geroan ere bizigarria izan dadin zenbait pista proposatzeko eskatu diote aholkulariari. Segur dena da, museoaren interesa nehorik ez duela dudan jartzen. Barne azterketa honen helburua da antolaketa eta kudeaketa ahal bezainbat egokitzea, museoak dakartzan aberastasunak merezi duten bezala baloratuak izateko.

Urtean 30.000 bisitari

Lehen lana, gisa bereko museoei konparatzea izan du enpresak. Eta dirudienez, Frantziako beste batzuekin alderaturik, ez dirudi hain gaizki kudeatua denik. Diru galtzea ez da hain harrigarria, omen, enpresaren iritzi. Edozein gisaz, guztiek argi dute museoaren helburua ez dela bisitariak trumilka erakartzea.

2001. urtean 50.000 bisitari hurbildu zitzaizkion. Iaz, 30.000 zenbatu zituzten. Euskal museo-ko lagunak elkarte-ko lehendakaria den Kristian Lietek azpimarratu nahi izan duen bezala: «Kulturaren bokazioa ez da errentagarria izatea. Kulturaren oinarritzen den egitura bati diru irabaztea ezin zaio eskatu». Badu beste egitekorik. Adibide bat emateko, museoak ikastetxe askotako gazteekin lan bereziak egiten ditu. Bisita gidatuz gain, atelier pedagogikoak proposatzen ditu baita.

Olivier Ribeton museo-ko kontserbadoreak, bere aldetik, ez du bere iritzia publiko egin nahi izan. Hori bai, aholkularitza ar-



SARRERA honetan agertzen den bezala, euskara eta oro har gaur egungo euskal kultura ez da baloratzen. BOB EDMÉ



OBJEKTUAK ongi baloratuak badira, testuinguru eskasa. BOB EDMÉ

ABIAPUNTUAREKIN ADOS

Eragile guztiek argi dute egitura kultural baten helburua errentagarritasuna ezin dela izan

duratzen den enpresari bai eman diola, museoarekin lotura zerbait duen orok eman duen bezala.

Dena dela, dirua irabaztea ezin bazaio eskatu, halarik ere, hobeki kudeatzetik bada. Ikerketaren lehen fasetik jalgi den puntu nagusietako bat da, justuki, museoaren gastu guztiak ez dituela zertan Baiona hiriak bakarrik ordaindu. Gaurko egunean udal museo gisa funtzionatzen badu, erakustokiaren ikusleria potentziala ez dela

MEZU NAHASIA

Hobe daitekeen puntu bat museoaren mezua da; izan ere, ez du bere euskaltasuna asumitzen

Baionako herritarretara mugatzen. Hiri elkargoak eta Kontseilu Nagusiak parte bat beren gain hartzea nabarmentzen du azterketak, hain zuzen.

Diruaz aparte, museoaren eskaintzari ere hurbiletik begiratu diote aholkulariek. Erakustokiak jorratu beharreko gaietan, bi zutabe nagusi ikusten dituzte. Batetik euskal kulturaren sus-traien azalpena, eta bestetik, Baiona hiriko eta, oro har, Aturri ibaiaren ingurutako historia-ren lekukotasuna bideratzea.

Funtsean, betidanik bi norabide hauek izan ditu museoak. Baina, agian, mezuaren aldetik hobetzeko aukerak izan daitezke. Alabaina, nahiz eta euskal museoaren antolaketa estetikoak objektuen edertasuna baloratzeko egokia izan, aldi berean, testuingururik ez da.

Objektuaren funtzioa zein den, nondik heldu den, eta oro har zer irudikatzen duen jakiteko perspektiba bat eman dezakeen deusik ez da. Euskalduna ez den batentzat ez da batere argi gelditzen. Euskal Herria zer den jakiteko biderik ez diote eskaintzen.

Euskalduntasuna eta Euskal Herria ez dira asumitua. Euskal Herriko historia bat adostu beharko litzateke horrentzat, eta hori eztabaida iturri da. Sarreran bertan, museoaren izena frantsesez hizki handiz emana diote, euskaraz, berriz, ttipiz. Funtsean museoaren barnean ere hala da. Esplikazioak hiru hizkuntzetan badira ere, euskara eta euskal kulturaren gaurko errealitateari ez diote lekuri ematen. Euskal literatura, konparazio, molde biziki anekdotikoan aipatzen du. Berdin, Euskal Herriaren mapari dagokionez. Ez da bat ere begibistan.

Alta, horrelako gaiak ezin direla saihestu argi uzten du ikerketak. Horiek horrela, Euskal Herriari eta honen historiari lotu eztabaida guztien bilgune bezala erabil daitekeela museoak aholkatzen dute.

LITERATURA

Zazpi bekatu nagusiak aztergai HUHEZiren Literatura Astean

Zazpi bekatu nagusiak izango ditu aurten gai nagusi Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak antolatutako Literatura Asteak. *Bekatu eta haragikeria* aztertuko dituzte bihar Aitzpea Goenagak, Iñigo Lamarkak eta Jabier Muguruzak, Ana Urkizak gidatuta. Hurrengo egunean, Kirmen Uribe, Hasier Etxeberria, Unai Elorriaga eta Harkaitz Cano mintzatuko dira, bakoitza bekatu banaz.

Blas de Oteroren 'Pido la Paz y la Palabra' oroituko dute Bilbon

Bernardo Atxagak, Jon Sanchezek eta Sabina de la Cruzek hartuko dute parte gaur, 19:30ean, Bilboko Bidebarrieta liburutegian, Blas de Oteroren *Pido la Paz y la Palabra* poema liburuaren 50. urteurrena gogoratzeko egingo den ekitaldian.

Ojangu proiektuaren aurkako errezitaldia egingo du Goierriko Kasta taldeak

Goierriko Kasta taldeak errezitaldia egingo du bihar, 19:30ean, Ordiziako Barrena kultur etxean, «Ojangu proiektu elitista eta pribatuaren aurka». Josanton Artze, Jon Arano eta Patxi Zubizarretaren testuak irakurriko dituzte, besteak beste.

ARTEA

Esther Ferrerren erakusketa zabalduko dute bihar Erroman

Esther Ferrer artistaren *Denboraren arrastoan* erakusketa Erromako Cervantes Institutuan egingo da ikusgai bihar-tik apirilaren 30a arte. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunearen eta Espainiako Cervantes Institutuaren arteko elkarlanaren fruitu da erakusketa. Munduko beste bost hiritan jartzeko asmoa ere badute bi erakundeek.

ZINEMA

Maureen Stapleton aktorea hil da

Maureen Stapleton aktorea atzo hil zen, 80 urte zituela, biriketako gaitz baten ondorioz. Jatorri irlandarrek familia batean New Yorken jaioa, antzerkian eta zinemaren lan egina zuen. 1981ean bigarren mailako antzezle onenaren Oskar saria eskuratu zuen, *Reds* filmean egindako lanagatik.